

3. HE: ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa

1

INFORMAZIO OROKORRA

- Hizkuntza Prestakuntza Arloa
- Modalitatea Jardun bikoa
- Hizkuntza Euskara
- Iraupena 10 ordu
- Ikasle kopurua 12
- Norentzat C1 mailako azterketa prestatzea helburu duten EAEko herri-administrazioetako langileentzat.
- Irakaslea AEK

Egutegia

- Eskatzeko azken eguna
Urriak 22
Oniritzi epea urriak 23-29
- Ikastaro-egunak eta lekua
Plataforma zabalik azaroak 18-abenduak 5
Zoom saioak azaroak 26 eta abenduak 3
- Orduetgia
Zoom bidezko saioak 09:00-11:00
- Baja emateko epemuga
Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

Ikastarorako sarbidea

<https://autoprestakuntza.euskadi.eus>

Prezioa 106,05 €

AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jardura eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena (uztailaren 8ko EHAA, 132. zk.).

Helburu orokorrak

3. HEko ahozko azterketa sortzen trebatzea.

Ahozko azterketen balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.

Helburu zehatzak

Azterketaren aurkezpena egitea.

IVAPeko proben balorazio-irizpideak azaltzea: komunikagaitasuna, jariotasuna, aberastasuna eta zuzentasuna.

Ahozko azterketan erabili beharreko estrategiak lantzea.

Komunigaitasuna zer den azaltzea.

Jariotasunez berba egitea.

Aberastasuren gainerako argibide batzuk ematea.

Zuzentasunari buruzko azalpenak ematea: oinarritzkoak diren akats larriak aipatu eta aholkuak ematea.

Konpetentziak

Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da, 3. HEko ahozkoak sortu behar dituen, egitura jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

PROGRAMA

Bi zoom saioetan dinamika oso antzekoa izango da: hainbat azalpen, aholku eta jarraibide labur emango dira. Jarraian ahozko azterketaren entseguak egingo dira. Halaber, egiten zaizkien oharrak kontuan hartuta, ikasleek aukera izango dute euren alderdi positiboak indartzeko eta txarto egiten dituztenak hobetzen saiatzeko.

Lineako unitateetan ondokoak landuko dituzte:

- Azterketaren ezaugarriak.
- Ebaluazio irizpideak.
- Azterketa egiterakoan kontuan izan behar dituztenak eta norberaren hutsuneak artezteko tresnak erakutsiko zaizkie.
 - Komunikatzeko gaitasuna
 - Egokitasuna
 - Koherentzia eta kohesioa
 - Aberastasuna
 - Zuzentasuna
- Ikasle bakoitzak bakarrik azterketaren entsegu bidez egin beharko du eta irakasleak zuzenduko dio.



METODOLOGIA

Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.

Bakarka edo binaka egingo da lan.

Egindako lana konpartitu eta komentatu egingo da.

4

EBALUAZIOA

Ebaluazioa

Ebaluazioaren helburua: Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.

Ebaluaketan ikastaroan zehar egindako entseguak neurtu eta baloratuko dira.

Aprobetxamendua

Bi zoom saioetara bertaratzea.

Eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.

Bakarrizketaren ekoizpena egitea.

Ikastaroaren balorazioa

Ikasleek astebetetze inkesta beteko dute.

Irakasleek balorazio inkesta osatuko dute.

5

OHARRAK

Baldintzak

Beharrezkoa da posta elektronikoko kontu korporatibo bat izatea ikastaroa egingo duen pertsona identifikatzeko.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 5.1 d) artikuluan xedatutakoaren arabera, datu pertsonalak zehatzak izango dira, eta, behar izanez gero, eguneratuak. Hori guztia zehaztasun-printzipioa betetzeko.

Harremanetarako

ikasivap@ivap.eus

Ziurtagiri digitala

Ikastaroaren aprobetxamendu-ziurtagiria eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotakoan, *IVAPekiko izapideak / Ziurtatzeak* atalean sartuta.

